



XXI. MENDEKO EUSKALDUNON ELKARTEAK

OINARRIPARRAK
2011ko otsaila





betiko saudadea (Koldo Izagirre, 1997)

Non dago Basques' Harbour

Galdetzen badut

Ez da mapa bat ekar diezadazun

Non dago Basques' Harbour

Galdetzen badut

Ez da galdu egin naizelako

Non dago Basques' Harbour

Galdetzen badut

Ez nabil portu bila

Non dago Basques' Harbour

Galdetzen badut

Zinez mintzo naiz baina

Non dago Basques' Harbour

Galdetzen badut

Ez dut erantzunik behar

Non dago Basques' Harbour

Galdetzen badut

Ez baitut galdera bat egiten

Galdetzen badut

Non dago Basques' Harbour

Non dago Basques' Harbour



AURKIBIDEA:

| | | |
|---------|--|----|
| 1. | SARRERA | 5 |
| 2. | TXOSTEN HONEN GAINEKO OHARRAK | 7 |
| 3. | HELBURU OROKORRAK | 9 |
| 3.1. | EUSKALDUNON ELKARTEEN OINARRIPARRAK | 9 |
| 3.1.1. | Gure egitekoa: euskal hiztunen komunitate osasuntsu eta iraunkorra indartzea eta elikatzea | 9 |
| 3.1.2. | Euskaldunon bizinahi pertsonal eta kolektiboak batzen gaitu | 10 |
| 3.1.3. | Hamarkadatan metatutako ezaugarriak geure oinarriak ditugu | 12 |
| 3.1.4. | Eleaniztasuna, bai, baina euskara lehenik | 14 |
| 3.1.5. | Egite eta eragitearen arteko oreka bilatuko dugu | 15 |
| 3.1.6. | Gizarte mugimendu gara | 16 |
| 3.1.7. | XXI. mendeko gizarte eredura egokituta arituko gara | 18 |
| 3.1.8. | Ekintzarekin batera, pentsamendua eta jakintza ardatz izango duen mugimendua da gurea | 20 |
| 3.1.9. | Herri mailako dinamikak nazio mailakoekin osatuko duen mugimendu artikulatua izango da | 21 |
| 3.1.10. | Hizkuntz ekologiaren printzipioak erabiliko dira bai plano ezberdinen arteko artikulazioan bai beste eragile batzuekiko osagarritasunean | 23 |
| 3.1.11. | Hizkuntza eta kulturaren ikuspegi sistemikoa hobetsiko da, biak baitira euskaltasunaren oinarri | 25 |
| 3.1.12. | Hiztuna ardatz | 27 |



| | | |
|--------|--|----|
| 3.2. | TOPAGUNEAREN LIDERGOA | 28 |
| 3.2.1. | Barrura begirako lidergoa | 29 |
| 3.2.2. | Kanpora begirako lidergoa | 30 |
| 3.3. | ETORKIZUNEKO ELIKADURA | 32 |
| 4. | AZKEN OHARRAK PROZESUAZ | 35 |
| 5. | ONDORIOAK | 37 |
| 6. | ETORKIZUNEAN LANTZEKO GERATZEN DIREN GAIAK | 45 |
| 7. | ITURRIAK | 49 |



1. SARRERA

Durangoan 2010eko urtarrilaren 23an “XXI. mendeko euskara elkarteak, diagnositik erronketara” izeneko jardunaldia egin zen. Haren ostekoak Topaguneko Zuzendaritza Batzordeak aztertu eta hainbat erabaki hartu zituen:

“1. Euskara Elkartearen Mugimenduaren pentsamendua eta diskurtsoa garatzeko mahai bat osatzeko gertuko hainbat aditu eta ariturekin eta urtea bukatu aurretik mahai horretatik ondorioztatutako lana bazkideei helaraztea.

Topagunean ulertzen dugu, gure diskurtsoa indartzea bestelako erronkei erantzuna eta arnasa emateko ezinbesteko hauspoa izango dela; gure komunikazioa aberasteko, gure estrategiak berrikusteko, gure kohesioa indartzeko eta finean, gure ilusionatzeko eta emozionatzeko gaitasuna areagotzeko.

2. Eskualdeka edota antzeko izaera duten elkarteak taldekatuta, gogoeta prozesu bat dinamizatzea bazkideen artean. Horretarako gidoi bat eta metodologia proposamen bat helaraziko zaizue bazkideei eta prozesu horietan laguntza zehatza emateko ahalegina egingo da. Horrez gain, gogoeta hauek elkarte bakoitzeko egin nahi izanez gero, horretarako proposamena ere landuko da.

3. Topagunearen diskurtsoa eta bestelako helburu, oinarri eta estrategien transmisiorako mekanismoak lantzea eta horrekin lotuta prestakuntza eta transmisiorako plan bat garatzea.

4. Aurreko lanak aurrera eramateko beharrezko baliabideak bilatzea eta lehentasunez gogoetarako mahaia eta mintegiak dinamizatzeke pertsona bat liberatzea. “

Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultateak, *Sorguneak* izeneko ikertegiaren eskutik, prozesu horretan eragile modura parte hartzeko proposamena helarazi zion Topaguneari eta, eragiletza adostuta, plangintzarako proposamena prestatu eta adostu genuen. Hiru aldi bereizi ziren plangintza horretan:



1.- *PROZESUAREN LEHEN GERUZA: NERBIO-SISTEMA (ADITUEN EKARPENA)*: **Oinarriparren oinarrizko proposamena lantzea** izan da zeregina. Horretarako, nahiko modu trinkoan lan egin nahi izan dugu. Talde prozesua bideratu dugu maiatza, ekaina, uztaile eta irailean zehar. Guztira 7 saiotan landu ditugu txosten honetan dauden gai guztiak. Esku artean duzun txosten honen lehen zirriborroa plangintzaren lehen fasearen emaitza izan da.

2.- *BIGARREN GERUZA: HEZURDURA (ARITUEN EKARPENA)*: Behin oinarrizko txosten hau adostuta, elkarte ezberdinetako hainbat kiderekin bildu gara. Kasu honetan 50 lagun iritziak bildu nahi izan ditugu. **Helburua izan da proposamena aberastea**. Horretarako beharrezko ikusi dugu hainbat oreka zaintzea. Lanketan, beraz, aldagai ezberdinak hartu ditugu kontuan: Batetik, elkartearen ingurune soziolinguistikoa, eskualdea, eskarmentua, landutako jarduera mota edota bazkideen antolaketa-modua. Bestetik, solaskideen generoa, lurraldea, adina, eskarmentua, jarduera esparrua e.a.

3.- *HIRUGARREN GERUZA: GIHARRAK (ELKARTEEN EKARPENA)*: 2011ko otsailaren 26an federatutako euskara elkartearen kongresu bat antolatu da, prozesu honen sozializazioa egiteko. **Helburu nagusia izan da egindako lana plazaratzea, eztabaidatzea eta onartzea**. Bilgunearen aurretik baina, hiru hilabetetan zehar landu da proposamena bazkideekin, lehenengo eskualdez eskualde aurkezpenak eginez eta ondoren, bazkideen arteko eztabaidarako lau mintegi antolatuz. Hortik aurrera aztertu beharko da adostutako dinamika zein nola inplementatu euskaldunon elkarteetan.



2. TXOSTEN HONEN GAINEN OHARRAK

Durangoko jardunalditik diagnostiko bat landu zuen Topaguneak. Hortik eta bestelako pertsona batzuei eskatutako ekarpen idatzietatik abiatuta ekin genion oinarriparren oinarritzko proposamena lantzeari. Taldekideon xedea ongi egiten diren gauzak berrestea baino diagnostiko horretan antzemandako hainbat hutsuneren gaineko proposamenak egitea izan da. Honakoak izan dira saioz saio landu diren gai nagusiak:

- 1.- *Adorez eta Atseginez*¹ mintegia gaur egundik begiratuta. Orduko oinarriparrak eta gaur egungoak.
- 2.- *Adorez eta Atseginez* mintegia gaur egundik begiratuta. Orduko ekintzak eta gaur egungoak.
- 3.- Egungo gizartea begiratzeko betaurrekoak. Gizarte mugimenduak gaur egun.
- 4.- Hiru esparru: elkarte bizitza, aisia-kulturgintza eta komunikabideak. Zer egiten dugu eta zer egin genezake.
- 5.- Topagunearen lidergoa eta hainbat elkartetako hausnarketa prozesuak (Berbaro, Elgoibarko Izarra, Zintzo-Mintzo).
- 6.- Ondorio orokorrak.

¹ Adorez eta Atseginez Mintegia 1990eko hamarkadaren hasieran sortu zen. Garai hartako Eskoriatzako Irakasle Eskolak "Euskal Soziolinguistika" izeneko ikastaroak antolatu zituen, hiru urtez, larunbat goizetan. Ikastaroetan aritutako hainbat irakaslek eta ikaslek elkartzen jarraitu zuten Txepetxen teorizazioa zabaltzen jarraitzeko. Harreman hartatik, elkar babestuz eta adoretuz, mintegiko kideak buru-belarri aritu ziren nor bere inguruan zeukan praktikari buruz gogoeta egiten, proiektu berriak sortzen. Adorez eta Atseginez Mintegiko partaideen bultzada sumatu zen herri askotako euskara-elkarteen sortze-eta ekite-prozesuetan.



Honako pertsona hauek hartu dute parte lan-taldean: Iker Martinez de Lagos, Jasone Mendizabal, Iñaki Martinez de Luna, Rosa Ramos, Imanol Larrañaga, Josu Aztiria, Gorka Barruetabeña, Imanol Miner, Elena Herrarte, Iñaki Arruti, Karmen Irizar, Sonia Pérez, Joxe Rojas, Manuel Moreno, Leihor Elorriaga, Xamar. Sorguneak ikertegitik, berriz, Jon Sarasua, Julen Arexolaleiba, Iñaki Urruzola eta Nekane Goikoetxea.

Oinarrizko diseinu batetik abiatuta, malgutasunez joan gara integratzen ideiak, iritziak eta kezkek prozesuan zehar. Prozesua akten bidez jaso da. Txostena, berriz, helburu orokorren arabera egituratu badugu ere, proposamena ardazten duten oinarri, diagnostiko eta politiken arabera antolatu ditugu ondorioak. Alegia, helburu orokorren lanketan, prozesuan zehar azaleratutako oinarri, diagnostiko eta politikak laburbiltzeko ahalegina egin dugu. 25 urtez egin dugunari esker gara gaur aurrera begirako urratsak definitzeko gauza. Proposamen irekia da honako hau.

Huheziko *Sorguneak* ikertegia Arte eta Parte izan da prozesu honetan. Bestelako lanketa batzuk egin zitezkeen baina honen aldeko apustua egin da *Sorguneak* ikertegitik. Denborak eta energiak ezarritako mugen barruan intuizioak gidatuko prozesua bideratu dugu denon artean. *Sorguneak* ikertegikook emaitzekin zintzo jokatzeko borondatea dugu, bidelagun izateko aurrerantzean ere.



3. HELBURU OROKORRAK

Euskara elkarteak dimentsio berri batean suspertzea bada ere xede nagusia, diagnostikotik abiatuta hirutara errenditu ditugu prozesuaren helburu orokorrak:

1. Euskaldunon elkarten oinarriparrak definitzea
2. Topagunearen lidergoa birdefinitzea
3. Etorkizuneko elikaduraren artikulazioa diseinatzea, motibazioaren eta ezagutzaren ardatzak lantzea

3.1. EUSKALDUNON ELKARTEEN OINARRIPARRAK

Euskara elkarteak sortu zireneko oinarriparrak XXI. mendera “ekartzeko” modukoak badira ere, oinarriparraren birformulazioa egiten ahalegindu gara. Gure iritziz, oinarriak eta iparrak honako hauek izan beharko lirateke, funtsean:

3.1.1. Gure egitekoa: euskal hiztunen komunitate osasuntsu eta iraunkorra indartzea eta elikatzea

Gure egitekoa da euskal hiztunen komunitate osasuntsu eta iraunkorra indartzea eta elikatzea. Horretarako, ezinbestekoa zaigu euskararentzat, euskal hiztunen komunitateentzat zein euskal hiztunentzat gune hegemonikoak



iraunaraztea, sortzea eta elikatzea; hau da, euskararen beharra sorrarazten duten guneak izatea, euskaraz bizi ahal izateko espazioak.

Lurralde hegemonikorik gabe ere, sare izaten jakin beharko genuke, minoria edo gutxiengoa izateraino iritsita baikaude euskararen herriaren zati handi batean. Ez badaukagu orain minoria izatearen kontzientzia gureak egin du, behar-beharrezkoa da. Ez dugulako minoria izaten jarraitu nahi, hain justu, horrexegatik da horren garrantzitsua kontzientzia linguistikoa. Biziraupenerako, beraz, gune hegemonikoak sortu eta zabaldu behar ditugu. Horretarako, euskararen eta euskal hiztunen interesak defendituko dituen nazio mailako ahotsa artikulatzea ezinbestekoa da. Kultura berri bat eskatzen du horrek, euskara eta euskal hiztunen eskubideen defentsa koherentea ez delako egin nahikotasunera iristeko behar duen zentraltasunez. Gure mugimenduak, beraz, euskararen interesak botere politikoak bere egin dezan ahotsa artikulatu beharko du nazio mailan orain baino modu eraginkorragoan. Geuk egin ez ezik beste batzuk ere egin dezaten eragitea dagokigu.

3.1.2. Euskaldunon bizinahi pertsonal eta kolektiboak batzen gaitu

Euskarak dakarkigun gutasunetik, euskararen berezko lurraldean bizi garen euskaldunok gure bizi nahia gauzatu ahal izateko elkartzen gara. Euskalduntasuna, euskaltzaletasuna, izaten jarraitzeko eta izaten hasteko gogoia ez datoz berez eta betiko sasoiotan, eraiki egin behar dira, bizi, ikasi, gozatu, irabazi... taldetasunean, jendartean... ahalik eta normalena izan dakigun



euskaraz ere bizi ahal izatea munduko paraje honetan, geure etxean, Euskal Herrian.

Hala, bada, geure erabakimenetik, hautua egiten dugu euskaldunon betiko izateko gogoari aurrerabidea emateko. Bide horretan, herrian herriko eta auzoan auzoko² euskaldunen topaguneak eratzen jarraituko dugu, horiek elkarrekin hartu-emanetan jartzen, Euskal Herria bera euskararen herrien- eskualdeen batura izaten jarrai dezan, berras dadin. Ez gara inoren kontra ari, geure alde baizik. Geugandik eta benetako aniztasunagatik. Euskaragandik eta hizkuntza ekologiagatik.

Izateko gogo horrek garamatza euskaldunoi dagozkigun eskubide pertsonalak eta kolektiboak aldarrikatzen, gutasuna dakarkigun euskara bera, bere berezko lurraldean, eskubideduna delako hizkuntza ekologiaren oinarriparratan.

Herri euskaldun honek izaten jarraitzeko, ordea, eskubidedun sentitzeak edota izateak berak neurriko erantzukizuna dakarkigu euskaldunoi. Autozentratzetik, norbera eta euskaldun antolatuak, gainerakoengan eragiten jarraitu nahi dugu, hartu-eman pertsonaletatik hasi, gertuko harreman-sareetan jarraitu eta euskaldun eleaniztunen nazio linguistikoa eratzeraino.

² Bidenabar hausnartu beharko genuke esparru geografiko zehatzez gaindi eratzen diren gunez guneko esperientziei (lan-tokietako euskaldunon elkarteak, esparrukako taldeak...) Topagunean federatzeko aukera eskainiko zaien ala ez.



3.1.3. Hamarkadatan metatutako ezaugarriak geure oinarriak ditugu

Ondorengo oinarripar guztien aitzindari, urtez urte euskara elkarteen ezaugarri izan direnak, hor diraute. Horiek dira, zalantzarik gabe, garrantzitsuenak. Horiek onetsi eta proposatutako oinarriparren filosofiarekin bat datozen beste batzuekin osatu ditugu zerrenda batera ekarrita:

- Egunerokotasunean, errealitatean oinarrituta, euskal hizkuntza komunitatea egituratzea eta artikulatzea izango dugu helburu baina horrekin batera euskaldun gehiago erakartzeko bokazioa izango dugu.
- Proposamen positiboak eta errealistak egingo ditugu eta helburu mailakatuen arteko egitasmo zehatzak martxan jarriko ditugu. Hala eta guztiz ere, ez dugu sekula begi bistatik kenduko bi plano ezberdin direla unean-unean egin dezakeguna eta etorkizunean euskaldun izaten jarraitzeko beharrezko duguna. Gaitasun estrategikoa da giltza.
- Gainegitura edo eremu politiko, ekonomiko eta sozialetan eragingo dugu, botere politiko, ekonomiko eta sozialak aldeko izatea klabea baita gaur egun eta hala izango da etorkizunean ere. Alderdi politikoen liskarretatik at kokatuko da mugimendua, ezein alderdiren monopolizaziotik ihes eginez. Adostasuna eta zabaltasuna ardatz izango du, beti ere bere oinarriparrei uko egin barik eta eragite dinamikari eutsiz.



- Hizkuntza politika ofiziala zein hizkuntzaren inguruko jarduna aztertu eta baloratu egingo ditugu. Eskakizun argiak eta zehatzak egingo dizkiegu botere publikoei, beti ere lankidetzan aritzeko borondate irmoarekin. Izan ere, aurrera egingo badugu, nor bere aldetik eta elkarlanean, euskarak boterearen eta gizarte zibil autoeratuaren beharra izango baitu aurrerantzean ere.
- Behar direnetan, presio soziala, salaketa eta irmotasuna ere erabiliko ditugu baina eraginkortasunez eta bestelako dinamikekin uztartuz.
- Elebakartasun/elebitasun eskematik haratago, gune hegemonikoen eta eleaniztasun iraunkorraren defentsa egingo dugu. Euskaldun izaten jarraitzeko xedez gune hegemonikoak ditugu arnasbide. Halaber, eleaniztasuna bultzatuko dugu, beti ere berarekin badakar aniztasunaren defentsa.
- Gure eragin esparrua zabala da eta ez da murrizten esparru jakin batzuetara (komunikabideak, aisia...), hizkuntzarekiko arduraren jardun politiko eta sozial guztietan ere txertarazi behar dugulako.
- Adostasuna azpimarratuko dugu desadostasunaren gainetik. Baikortasun kritikoa izango da gure jarrera. Adostasuna bilatuko bada ere, ez zaio uko egingo gatazkari. Azken hauek etikoki kudeatzen saiatuko gara.



- Elkarteen artean erritmo ezberdinak egongo diren arren, beti egongo da aitzindariaren bat. Erritmo eta dinamika ezberdinak modu eraikitzailean bideratuko ditugu.

3.1.4. Eleaniztasuna, bai, baina euskara lehenik

Euskal hiztunen eskubideak defenditzea bateragarria izan beharko luke, bestalde, bokazio aglutinatzailea duen mugimendu batean eleaniztasunarekin. Izan ere, hizkuntz aniztasunarekiko konpromisoa da norabidea. Ikuspegi ekologikotik zientzia soziolinguistikoak esango digu zeintzuk diren euskara bezalako hizkuntzek beharrezko dituzten gutxieneko baldintzak. Eleaniztasunaren aurrean, hortaz, “lehenengo euskara eta gero beste hizkuntzak” izango da premisa. Unibertsaltasuna etxetik hasten da. Adi ibili behar dugu, ordea. Izan ere, ondo dakigunez, eleaniztasun zein kulturartekotasunaren alde omen dauden diskurtso askoren azpian politika fagotizatzaileak ezkutatzen baitira. Eztabaida teorikoa dena estrategikoa ere bada.

Euskaldunok jakin dugu gaurdaino heltzen, historian zehar inoiz izan garen baino gaituago gara gaur egun, baina paradoxikoki inoiz baino larriago ere egon gintezke eleaniztasunaren baitan euskarak lehen hizkuntza izateari uzten dion neurrian. Hizkuntza menostuak ezin dio uko egin euskal elebidunen tipo linguistikoa hegemoniko izateari.



3.1.5. Egite eta eragitearen arteko oreka bilatuko dugu

Egite eta izatearen arteko oreka bilatu beharko genuke aurrerantzean. Euskara elkarteen sorreran orekatsuagoa izan zen bien arteko osagarritasuna baina denboran zehar zerbitzugintzak, ekintzak antolatzeak pisu gehiago hartu du eta, adibidez, euskaldun osoen bateragunea eraikitzean, hots espazio sinbolikoaren nuklearizazioan, ez da nahi beste aurreratu. Beraz, aurrerantzean, arreta handiagoa jarri beharko genioke mugimendu izateari. Ekintzak planifikatzerakoan, hortaz, aztergai izan beharko genituzke esate baterako, pertsona mailako autokonfidantza nola lan litekeen gure ekintzekin; kontzientzia linguistikoan eragin ote dugun; edota gune sinboliko koordinatuak nola joango garen zabaltzen egiteko anitzetan gabiltzan euskaldunon artean.

Euskaldunen artean egin beharrekoa lehentasun izaten jarraituko badu ere, euskara ez dakitenengana ere heldu beharra ikusten dugu. Orain artean oso gutxi hausnartu dugu zer egin gizartean maioria den jendartearekin, euskaraz ez dakitenekin. Euskaraz ez dakiten asko dira gaur egun gure zerbitzuen hartzaile (pasiboak), komunikabideen zein aisialdiaren eskaintzan. Pentsatu egin behar dugu zer egin hobeto ezagutu gaitzaten, bidelagun izan ditzagun.

Hizkuntzaren estatusaren politikak koordinatuko dituen bilgunearen beharra aspaldi nabarmendu da³. Euskaldunon elkarteek tokian tokiko euskalgintzan

³ Normalkuntzaindia deitu zitzaion koordinazio hori burutu behar zuen erakundeari. (Arruti, Iñaki & Muniozguren, Fernando (1992) Euskararen normalizaziorako entitateen arteko elkarlana. Jazten 8. Zenbakia)



nukleo izateko bokazioa izan dute. Batzuek lortu dute, beste batzuek ez. Beste batzuek aliantzak lantzeko bideari heldu diote. Tokian tokiko ezaugarriak kontuan hartu beharko lirateke nukleoan ala periferian kokatu behar diren erabakitzeke, edo aliantzen bidea lantzea hobesteko, baina estatusaren inguruko politikak koordinatzearen ideia baztertu ezina da mugimenduarentzat. Historikoki elkarguneak eta aliantzak antolatzeke baldintzak sortu izan dituzte euskara elkarteek. Aurrerantzean ere oso kontutan hartu beharko litzateke langintza hau eragiteko tresnen artean. Herri mailarako balio duenak nazio mailarako ere balio beharko luke, euskaldunon elkartearen mugimenduak euskaldunon komunitatearen nukleo izateko eta aliantzak lantzeko funtzioei heldu behar lieke. Gure oinarriparrekin bat datozen foroetan portaera asertiboa izatea eta bokazio eraikitzailea izatea giltzarri izango da.

3.1.6. Gizarte mugimendu gara

Gizarte mugimenduek gutxienez bi ezaugarri hauek eduki behar dituzte: batetik, instituzioen eta eragile sozialen diskurtsoak auzitan jarri behar dituzte; bestetik, gizartea ilusionatzea eta parte-hartzailea izatea lortu behar dute. Euskara elkartearen sorreran ziurrenik bi helburuak orain baino era orekatuagoan landu ziren baina orain bietako lehena berrartu beharra ikusten da. Euskara elkarteek asmatu dute gehienetan alderdikeriatan ez erortzen baina bere lekua topatze horretan kritikotasuna kamusten joan da. Helburua da instituzioak eta gizarte zibil autoeratua norabide berean aritzea, ahalik eta lankidetzarik



emankorrenean. Hori izan ohi da euskara elkarteon jokabidea urteotan. Egin ahalak egin beharko ditugu aurrerantzean lankidetzaz hori gara dadin.

Bestetik, gizarte mugimenduen kapital handiena jendea izan ohi da. Euskara elkarte guztien artean 20.000 bazkide, 400 langile, 3.000 boluntario, eta 95 elkarteko sarea osatzen dugu. Elkartearen dinamika aztertuz gero, ordea, ikusiko genuke lan boluntarioa galtzen joan dela, ez dugulako asmatu parte hartzeko aukerak eskaintzen. Gizarte mugimendu sendo izango bagara lan militantearen artikulazioan inbertitu behar da.

Horrekin batera, boluntario eta profesionalen funtzioen hausnarketa egitea komeni zaigu. Sarritan kudeaketak jan du elkartearen bizitza eta ongi pentsatu beharko litzateke zein funtzio bete behar dituzten eragile ezberdinek.

Ildo beretik ongi pentsatu beharko genuke zein leku ematen diegun elkarteetan herrietako euskaldun osoei; zein plaza eskaini beharko geniekeen; nola prestigiatu euskalgintzan dabilen militantea; zein gune duten bazkideek eta boluntarioek elkarteetan elkarrekin topatzeko, zein espazio fisiko, zein formazio espazio, zein espazio ludiko...

Gure mugimenduak definitutako xede-taldeengan ilusio sortzaileak izango diren dinamika jarri behar ditu martxan. Horretarako, komunikazioa ongi landuko da. Norengana goazen definitu behar dugu; zertara goazen; nola esan behar dugun ... Oso kontuan izango ditugu bai sare sozialak bai sare birtualak, biak baitira beharrezkoak, beti ere lehenengoa oinarri dela.



3.1.7. XXI. mendeko gizarte eredura egokituta arituko gara

Errealitatearen irakurketa zorrotz eta egokia falta izan da askotan euskalgintzan oro har. Ametsaren eta errealitatearen artean eten handiegia dago. Nahi dugunaren eta lortu dugunaren artean zulo handiegia dago, ametsak errealitatera hurreratzeko zubiak eraiki behar dira. Boluntarismoaren meneko irakurketa oso prekarioan oinarrituta diseinatu dira askotan euskara elkarten plangintzak, baina ikuspegi soziologiko sendoa nahitaezkoa da errealitatean eragiteko. Garrantzitsua gertatzen da, beraz, diskurtsoen lanketa ahalik eta osatuen eta orekatuenak egitea, gure perspektiba zabaltzea.

XXI. mendeak nolako paradigma ekarri duen hausnartu beharko genuke eta nola eragiten dion horrek euskara elkarten dinamikari. Beraz, gaitasun estrategikoa duen dinamika nahi badugu, hots, epe ertain eta luzerako urratsak kateatzeko gaitasuna duena, aroarekin bat datozen lan-ildoak abiarazi beharko ditugu.

Gaur egun, adibidez, identitatea ez da jada alde zuzenetik eta bizitza osorako pertsona definitzen duen datu aldagaitza, baizik eta zeregin bat, pertsona bakoitzak landu behar duen zerbait. Gainera, indibidualizazioa ardatz duen aro honetan premiazkoagoa gertatzen da erakargarri gertatuko den autodefiniziorako aukera sendoa eraikitzea. Euskararen aldeko gizarte mugimenduak bide-lagunak izango baditu, etengabe erakutsi beharko du bere xarma eta, aldi berean, identitate kolektibo gisa portu-segurua bihurtu beharko da, aingura kultural erakargarria. Euskaldunentzat batez ere, baina baita ia-



euskaldunentzat eta erdal komunitatearentzat ere. Euskara batzuen eta besteen, guztion, ondare kulturala da-eta.

Hizkuntza eta kultura euskal nortasunaren eraikitzaile nagusiak dira. Beraz, nortasuna eraikitzeko prozesuan askatzaileak gerta litezke. Alegia, “desapuntatzeko” errazak diren bestelako nortasun-legami batzuen aurrean, portaera orekatu eta orekatzaileak lortzen eta garatzen laguntzen dute. Osasungarriak dira. Hala bada nortasunaren alderdi sendoetan hizkuntza-talde kontzientzia eragiten asmatu behar dugu. Horri abantaila atera behar zaio mugimendutik. Predikatzen dutenaren praktika koherentearen gainean eraiki behar dira mugimenduak. Horrek egiten ditu sinesgarri eta erakargarri.

Bestalde, ezinbestekoa da nahia elikatzea, euskara aukeratzeko arrazoiak etengabe sortzea. Nahia artikulatzeko motibazioa etengabe elikatu behar da. Nolakotasuna da, beraz, garrantzitsua, euskaldun izaten jarraitzeko arrazoiak sortzea, botere kulturala artikulatzea. Euskaldun izateak jada ez du funtzionatzen kontzientziarik gabe.

Paradoxikoa dirudi euskal komunitateak baino masa kritiko handiagoa duten hizkuntza komunitate espantsiboak identitatearen lanketarekin buru-belarri ibiltzea baina beraiek mehatxatzen dituzten komunitate txikiagoen aurrean despolitizazioa aldarrikatzea. Hizkuntza eta kultura gai politikoak dira eta hegemonia jokoetan murgilduta daude. Are gehiago aro globalean.

Aro honetan, bestalde, sare sozial zein sare birtualak sustatu beharko ditugu lehenengoei lehenetasuna emanez, beti ere. Bazkideei hiritartasun aktiboa



garatzeko bitartekoak eskaini beharko genizkieke “orduen bankua”⁴ bezalako ekimenak abiaraziz.

3.1.8. Ekintzarekin batera, pentsamendua eta jakintza ardatz izango duen mugimendua da gurea

Euskararen, euskal hiztun komunitatearen eta euskal hiztunen interesak zein eskubideak ikuspegi ekologiko, politiko eta soziolinguistikotik defendituko dituen mugimenduak pentsamendua eta jakintza du ardatz, hori da bere bermea. Nolanahi ere, errealitate bat da euskara elkarteen sorreran izan zen jakintza transmisioak eten handiak izan dituela. Bifurkazio moduko bat egon zen aspektu teoriko, kualitatibo eta muinekoak gehiago zaintzearen eta mugimenduaren aspektu tekniko, zerbitzuzko, aseptikoagoi garrantzi handiagoa ematearen aldekoen artean. Biak ditugu beharrezko. Ezagutza eta ekintzen abiadura orekatu behar dira aurrerantzean.

Egiten ari garenaren kontzientzia ez digu egite hutsak ematen, bestalde. Beharrezkoa da hausnarketa eta janzte-lana. Zergatik egiten dugu egiten dihardugun hori? Eta hori eginda nora goaz? Galdera horiei erantzun zien *Adorez eta Atseginez* mintegiak. Teorian berritze eta sakontzea beharrezkoa da, balio behar du esperientziari hitza jartzeko eta hortik energia sortzeko. Egiteari eman diogu lehentasuna, izateari heldu behar diogu orain.

⁴ Urtean hitzartutako ordu kopuru bat eskaintzea elkarteari, norberaren ofizio ala afizioekin loturiko jarduera bat egiten.



Hizkuntza politiken aurrean irakurketa propioak egingo dituen taldea falta zaigu. Ongi oinarritutako iritzia artikulatu beharko litzateke, kritikoa, autoritate izango dena, *normalkuntzaindiaren* gainean arituko den eragile independentea.

3.1.9. Herri mailako dinamikak nazio mailakoekin osatuko duen mugimendu artikulatua izango da

Udalerrria izan da euskara elkarten berezko esparrua. Topagunea, euskara elkarten federazioaren sorreran bertan herrietako dinamikak aberastea zen bere funtzioa, inolaz ere “makroa” elikatzea. Horrela jasotzen da estatutuetan. Aitortzen zitzaion Topaguneari euskara elkarten norabidea euskararen zerbitzura ahalik eta modurik egokienean egon dadin ziurtatzeko lana eta onartzen dira elkarten atomizazioa gainditzeko premia, solaskidetzaren eratzearena eta baliabide eta ahalmenak optimizatzeko beharra. Nolanahi ere, mugimendu artikulatuagoaren premia gero eta handiagoa da eta Topaguneari bestelako lidertza eskatzen zaio euskara elkarteetatik. Auto-eraketan sakontzeko premia handia da.

Agortze-fase baten aurrean gaude eta elkarteak ahultzen joango dira eragin ezean. Fase berrirako mugimendu kontzientzia sortu behar da eta erantzukizuna batez ere elkarteek dute. Topaguneari berari aupada bat eman behar zaio horretarako, legitimitatea eman behar zaio. Nagusiki zerbitzugintzan arizetik zerbaiten irudi izatera egin beharko luke jauzi Topaguneak.



Topagunearen lidergoaz baino mugimenduaren funtzioez hitz egin behar da lehendabizi. Topagunea bitarteko bat da eta posible izan beharko litzateke beste erakundetze modu bat sortzea ere. Lehentasuna da mugimendu moduan zer nahi dugun definitzea. Kanpo ahotsa artikulatu nahi ote dugun erabaki behar dugu eta, ondoren, nola egin genezakeen.

Gizartean eragitea bada gure lana, bertan eragiten duten aldagaiak ezagutu eta beraietan esku-hartzeko moduak antolatu beharko genituzke. Nekez egin liteke hori mugimendua artikulatu gabe. Euskararen komunitateak badu gidaritza argi baten premia eta euskaldunon elkarteek mugimenduak, Topaguneak aitzindaritza hartuta, bete dezake gabezia hori. Izan ere, gaurko gizarte dinamikek bi zutabe sendo dituzte:

- a) Pentsamendua eta sentipenak: diskurtsoa eta ideologia, balioak, ikur-sinbolikoak...
- b) Harreman-sare sendoak eta oparoak herri-taldeekin, herri-erakundeekin, gizarte eragile mota guztiekin eta, mundu globalizatu honetan, nazioarteko taldeekin ere bai.

Halakorik ezean, talde gutxiagotuenak egin du. Alegia, beste talde handien artean bere mundu propioa sendotu behar du. Herri mailan eragiten badugu ere nagusiki, guk gora ere eragin behar dugu. Goitik behera datorren *euri jasak* herri mailan ere eragiten du.



Nolanahi ere, Topagunearen funtzioak pentsatu behar dira herrietako euskara elkarteek ere beren funtzioak hobeto bete ditzaten. Mugimenduaren indargune nagusia herrietako dinamiketan dago, nahiz eta artikulazio lana premiazkoa den⁵.

Ezin dugu ahaztu herri askotan euskara elkarteek lortu dutela beren ekimenen bitartez talde politikoaren arteko liskarrak gainditzea, euskaldunon lehentasunak erdigunean jarrita. Bokazio bera izan beharko genuke, mugimendu moduan, nazio mailan ere, euskaltzaleen bilgune artikulatua izatea alderdikeriez haratago.

Horiek guztiak direla-eta, esan dezagun bukatzeko desiragarria dela euskara elkarte gehiago sortzea eta biltzea federaziora. Sarea Ipar Euskal Herrira hedatzea lehentasuneko eginkizuna da eta Nafarroa zein Arabako zenbait eskualdetako hutsuneetan eragitea ere interesgarria litzateke.

3.1.10. Hizkuntz ekologiaren printzipioak erabiliko dira bai plano ezberdinen arteko artikulazioan bai beste eragile batzuekiko osagarritasunean

Euskal nortasunarekin bat egitea aski eta soberako argudioa bada gutako askorentzat euskararen alde egiteko, baina tamalez denentzat ez du balio. Hizkuntz ekologiaren paradigma⁶ da gure indargunea, gizarte osoari begira.

⁵ Artikulazio lan horretarako eskualde mailako dinamikak antolatzearen alde egingo da, gogoetarako zein antolaketaerako eremu interesgarri modura baloratzen baitira

⁶ Hizkuntza ekologia: Hizkuntza baten eta bere ingurumenaren arteko harremanak aztertzen ditu (Haugen, 1972). Ingurumena definitzeko kontuan hartzen ditu alderdi psikologikoak (hizkuntza horrek



Biziraupena eta aniztasunaren defentsa gure oinarriak eta konplexutasunaren onarpena gure iparra. Zentzu horretan hizkuntza ekologiaren teorizazioak ezarri dituen oinarrizko printzipioak aplikagai izan beharko lirateke nola mugimenduaren diskurtsoetan hala praxian.

- Subsidiaritate printzipioa: Jatorrizko edo berezko hizkuntza batek egin dezakeen oro ez luke egin behar hizkuntza globalago batek.
- Funtzio eksklusiboak behar dira jatorrizko edo berezko hizkuntzarentzat.
- Gizarte ekintza guztietan agertzen diren eragin soziolinguistikoak neurtu behar dira.

Ildo beretik, xede-taldearengandik gertuen dagoen eragileari dagokio berak egin dezakeenari heltzea. Printzipio honek balio beharko luke bai elkarte/federazio arteko funtzio banaketarentzat, bai euskalgintzako bestelako eragileekiko harremanetarako ere.

Bestetik, gizarte mugimendu honek mundu mailako beste mugimenduekiko engaiatuta egon beharko luke. Munduko beste hizkuntza batzuen patuak

beste hizkuntza batzuekin duen harremana hitzunaren buruan) eta soziologikoak (gizartearekin duen harremana komunikazio bide gisa).

Oro har, hizkuntzen eta hizkuntza-komunitateen arteko erlazioak ekologiaren ikusmoldearekin uler daitezke. Hizkuntzek eta hizkuntza-komunitateek elkarrekin dituzten harremanak sistema dinamikotzat hartzen ditu hizkuntzen ekologiak, eta haien arteko orekaren eta hizkuntza-aniztasunaren ikuspegitik aztertzen ditu. Desorekatik aldaketa, erregulazioa sortzen da.

(Soziolinguistika eskuliburua; Soziolinguistika Klusterra; 2010)



eragin zuzena du gure komunitatean ere. Garrantzitsua da aro globalean koordinaturik jokatzeko. Indargune bihurtu behar dugu kooperazioa, eman bezainbeste jaso dezakegulako *glokal* jokatzetik. Euskal Herrian azken 50 urte hauetan bereziki garatutako esperientzietatik ondorio asko atera ahal dituzte antzeko zereginetan munduan zehar ari diren beste hainbat herrik.⁷

Belaunaldi berriei begira ereitekoa den garai honetan euskaldunon elkarten mugimenduak joka dezake legami legez parte hartzen duen bestelako euskalgintzako foroetan: Kontseiluan, Soziolinguistika klusterrean, Langune hizkuntz industriaren klusterrean, Euskararen Aholku Batzordean ...Bere oinarriparrekin bat egiten duten erakundeetan modu aktiboan jokatu du hizkuntz ekologiaren paradigmatik baitan. Aitzindarien belaunaldi moduan jokatzeko dagokigu hurrengo belaunaldiaren ondarea baita guk esku artean daukaguna. Euskara hemen lekututako ondarea da, hurrengo belaunaldiak maileguan laga diguna.

3.1.11. Hizkuntza eta kulturaren ikuspegi sistemikoa hobetsiko da, biak baitira euskaltasunaren oinarri

Urteetan atzera egingo bagenu euskal hizkuntza eta euskal kulturaren defentsa modu bateratuan egiten zela ikusiko dugu. Denbora berantiarretan, ordea, disoziazio garbi bat egon da hizkuntza eta kulturaren artean. Arrazoieta luzatuko ez garen arren, apustu egiten da ikuspegi sistemiko baten alde. Euskal

⁷ Balio beza Garabide elkarteak egindako bideo honek esandakoaren adibide legez: www.garabide.org



kulturgintza, euskaratik eta euskaraz sortzen den produkzio artistikoa, euskaldunon bizinahiak behar duen erregai sinbolikoa da.

Sormenak eta ospakuntzak dakarte berrikuntza, autokonfidantza, poza. Gureak mugimendu alaia behar du, mezu transgresoreak erabiliko dituen. Kulturgintzaren eta oro har komunikazioaren zeregina funtsezkoa da.

Aurrerantzean gutxiagotan hitz egin beharko genuke hizkuntzek berez badituzten eskubideei buruz eta gehiagotan hiztunen eta hiztun komunitateetan antolatutako pertsonen eskubideez gure diskurtsoak sozializatzerakoan. Hiztunen portaera asertiboek, bere emozioen lekukotzak, bere identitatearen praktika koherenteak eragingo du orain eta hemen besteengan, ez hainbeste noizbaiterako abstrakzio liluragarri batek. Autoafirmatutako euskaldun antolatuen trinkotzean ere, eremu sinbolikoaren egituratzean, sekulako rola joka dezake kulturgintzak. GU handia eraikitzeko eremu naturala da. Ezin dugu begi bistatik galdu hizkuntza eta kulturarekin lotuta doan merkatuaren garrantzia. Geure baitatik ere eragin behar dugu euskal kultura prestigiatzeko, ezagutarazteko, hedatzeko, kontsumitzeko.

Jarraidura eta irekiduraren arteko oreka bilatu beharko genuke nolnahi ere. Aurrekoengandik jaso dugunari eutsi eta gure ondorengoei ematea izango litzateke jarraidura. Irekidura, berriz, atek zabalik izatea, ereiten jarraitzea historiak dakartzan berrikuntzen eta aldaketen aurrean. Jarraiduraren eta irekiduraren, eustearen eta ereitearen arteko oreka izan da Euskal Herria gaurdaino ekarri duena. Biziraupenaren giltza hortxe egongo da aurrerantzean



ere. Beraz, nola hizkuntz erabileran, hala kultur bizitzan oso kontuan hartu beharko genuke oreka hauxe.

3.1.12. Hiztuna ardatz

Azkenik, hiztunen planoan berreskuratzea eskatzen du aro honek. Urte luzeetan hiztun komunitatean eragitea izan da lehentasun euskara elkarteetan, aurrerantzean, ordea, orain arte baino arreta handiagoa eskaini beharko zaio arlo honi. Hiztun gisa, liseriketa egiteko tresnak eskaini beharko lituzke mugimenduak, hiztunari gertatzen zaiona ulertzeko, gezur sozialen irakurketa kritikoa egiteko, nazio mailan oro har gutxiengo izatearen kontzientzia lantzeko, portaera asertiboak aktibatzeko; beti ere, Euskal Herriko biztanle prototipoa euskalduna izateko borondateari uko egin gabe.

Zentzu honetan lagungarri gerta dakiguke beste gizarte mugimendu batzuk (feminismoa, ekologia, homosexualitatea...) egindako bidea. Hala eta guztiz ere, ezin dugu begi-bistatik galdu postmoderniaren diskurtsoak ukatu egiten duela gizabanakoak, beregaintasunez bizitzeko, nortasuna eraikitzen laguntzen duten talde sozial sendoen beharrik duenik. Gureak egin du *n*iberalismoaren muturrera igarotzen bagara. Nolanahi ere nork bere ibilbide propioa egiteko aukera eskaini beharko genuke. Elkarte irekiak beharko genituzke bai euskaldun aktibo bai euskararen erabilera eragozten ez duten euskaldun pasiboei begira. Euskaltzaleon etxe beharko lukete.



3.2. TOPAGUNEAREN LIDERGOA

Oinarriparren artean esan dugu mugimendu artikulatua izan nahi badugu, ezin zaiola uko egin nazio mailan jokatzeari eta hainbat argudio ere zirriboratu ditugu. Ez gara luzatuko, beraz.

Bestetik, hizkuntz ekologiaren paradigma defenditzerakoan ere subsidiaritate printzipioen aldarria egin dugu. Garapena behar badu ere, gidaritzaren praxiari buruz egin ditugu hainbat ohar.

Aitortzaren premia du Topaguneak lidergoa garatuko badu. Hala ere, ezagutzaren transmisioaren etenari aurre egitea eta bazkide-militanteen aktibazioa ere funtsezko eginkizunen artean ditu Topaguneak berak, elkarte guztiek bezalaxe.

Barne komunikazioa ardatz izango duen dinamika bat lideratu beharko luke, beraz, Topaguneak bai barrura begira, mugimenduko kide guztien artikulazioan eragiteko, bai kanpora begira, gizartean ahots propioa izateko eta eragite dinamikak indartzeko.

Topagunearen sorreratik bertatik federazioaren bokazioa bere bazkideen jarduera sustatzea eta euskara elkarteak indartzea izan da eta aurrerantzean ere zeregin nagusia hori izango da: euskaldunon elkarteen mugimendu artikulatu eta sendoa egituratzea. Eginkizun hau mugimenduaren eta bere kide diren elkarteen indartzetik eta barne kohesiotik bakarrik lortu ahal izango da, barne kohesio indartsuak kanpora begira indarrez agertzeko aukera emango duelarik.



3.2.1. Barrura begirako lidergoa

Konpaktazioa helburu, euskaldun antolatuen mugimendu nazionala eraikiko bada denontzat binkulanteak⁸ diren dinamikak bideratu beharko lirateke. Kohesio lana, bada, funtsezkoa da eta plangintza propioa eskatzen du. Darabilgun hiztegia bateratzen hasi beharko genuke eta, zentzu horretan, gorago zirriborrotutako oinarriparrak oinarria ezarri nahiko lukete, eztabaida bideratzeko lehen urrats modura. Indarrak batu behar dira baina baita poza partekatu ere. Bateratze-prozesua planteatuko da, izenetik hasita esate baterako.

Barrura begirako artikulazio eta konpaktazio lanak lehenetsu izan behar du Topagunearen jardueran. Izan ere, mugimenduak ahots propioa izan dezan, garrantzitsua da ahots hori mugimenduan ondo txertatutako ahotsa izatea, elkarteek bere egiten duten ahotsa izatea. Topaguneak historikoki euskara elkarten arteko artikulazioa lantzeko izan duen eginkizuna indartu eta funtsezko bihurtzen da orduan. Kanpora begirako lidergoa, barnean ondo kohesionatutako eta artikulatutako mugimendutik abiatuko da.

⁸ Mugimendu modura hartzen diren erabaki adostu eta estrategikoetan (sektorialak ere izan daitezke, adibidez, hedabideetan), behin erabakia hartuta dagoenean (ez Topaguneko zuzendaritzak, baizik eta Topaguneko kide diren elkarteek), binkulazio maila hori egon behar da.



3.2.2. Kanpora begirako lidergoa

Garrantzitsu jotzen badugu bestelako egituratze bat osatzea kanpora begira, horretarako funtzio berri batzuk bereganatu beharko lituzke Topaguneak. Adibidez:

- Think tank edo **diskurtso-egile** bihurtzea, gizarteak euskararen bidetik jarrai dezan. Horretarako beharrezkoak diren diskurtso edo interpretazioak (hizkuntzen inguruko balioak), estrategiak eta mezuak landu behar dira; baita komunikazio-kanpaina diseinatu eta abian jarri ere, ondoren gizartean hedatu daitezten. Egun, euskara eta hizkuntzen gaineko “framing” edo interpretazio-eskema birplanteatu beharra dago. Trantsizio garaian guztiz aldekoa bazen ere, gaur egun diskurtso alderdikoi interesatuen maltzurkeriak eta gizarte-zalantzek erabat zulatu dute erakargarritasun hura eta atzera bueltako arriskua badago.
- Lobby edo **presio-talde** bihurtzea, Topaguneak herri-erakundeen aurrean ahotsa eta pisua izan ditzan. Izan ere, hizkuntza baten bizindarraren zati bat botere-guneetan eragiteko ahalmenean datza. Presio taldeak ez du zertan gatazka-taldea izan behar; konfrontazio-estrategia hori beharrezkoa denean erabilgarria bada ere, presio-talderen lana beste oinarri batzuetan datza gehienbat: harremanetan, elkartrukean, konbentzimendu eta konplizitatea bilatzean, seduzitzean, zirikatzean eta abarretan.
- **Erreferente sinboliko** bihurtzea, euskaltzaleek badute euskararen erreferente garbi baten premia, Euskaltzaindia edo Kontseilua funtzio hori



betetzetik oso urruti gelditzen direlako eta, gainera, baliteke euren berariazko zeregina ez izatea. Topaguneak heldu beharko lioke euskaldun antolatuon erreferentzialtasun iraunkor horri.

Mugimendu moduan erreferentzialtasuna lortzeko bide horretan ekintza, ekimen eta jarduera erreferentzialak bitarteko egokiak izan litezke. Izan ere, badaude aldi baterako sortuak diren adibide aipagarri batzuk (Korrika, Araba Euskaraz,...). Horien osagarri izango diren beste erreferente batzuk Topaguneak osatu eta lidera litzake; adibidez, Euskararen Egunean hiri eta herri guztietan elkarretaratzeak deitu eta sinbolismoz betetako "performance"-ak antolatu. Era horretan, erreferentzialtasuna irabaziko luke erakunde gisa.

Ziur aski gurea bezalako mugimenduak duen hedadura zein nolakoa den kontuan hartuta, albokalarien teknika erabili beharko dugu gure ahotsa artikulatzeko. Alegia, barrura eta ondoren kanpora begiratu beharko dugu. Hazkunde baten beharrea gaude. 20.000 lagun bagara egungo bazkideak, beste makina bat erakartzeko modua egin behar dugu, tokian tokiko euskaldunon elkarteak benetan izango bagara.

Gizartean eragina lortzekotan, ordea, barruan lortzen dugulako izango da. Lehentasuna da 20.000 bazkideen atxikimendua lortzea, taldetasun sentimendua artikulatzea. Horretarako Topaguneak berak elkartearen bitartez bazkideengana iristeko plangintza egoki bat egitea izan liteke bidea. Ekintza sinboliko soltea baino diskurtsotik etorriko den taldetasun sentimendua sortuko duena. Gorputz sozial horrek forma hartzen duen neurrian etorriko da kanpoko oihartzuna ere. Euskara elkarteak mobilizatzea ez da helburu bakarra,



baizik eta bazkideengana iristea, euskaldunak ilusionatzea. Euskara elkarteentzako mugimendu da Euskal Herrian palanka lana egin dezakeena. Honela, Topagunea euskaldunengana iristea da euskara elkarteak indartzeko modurik potenteena.

Topaguneak soziolinguistikan autoritate diren lagunen taldea behar du. Hori ere plangintza batera ekarri beharko litzateke. Euskara elkarteentzako bazkideentzako artean badira autoritate horiek, beren bila joan beharko genuke eta bazkideentzako sortzen ditugun parte-hartze aukerak ere eskaini pertsona hauei. Orekatu egin beharko lirateke aditu eta arituen arteko autoritateak.

3.3. ETORKIZUNEN ELIKADURA

Mugimenduaren erreproduzio sistema artikulatzea funtsezko estrategien artean kokatu dugu. Izan ere, aipatu dugu oinarriparren artean pentsamendu eta jakintza ardatzak ez direla behar bezala artikulatu azken urteetan. Euskara elkarteetan, aldiz, sekulako ezagutza metatu da eta haren optimizazioa lehentasunezko kontua da. Zuzendaritzetako-kideak, elkarteetako bolondresak eta bertako langileak artikulatu beharko lirateke elikaduraren bueltan.

Langileriaren artean perfil teknikoa hobetsi da zerbitzugintza izan delako lehentasun baina trinkotzean aurrera egingo badugu eragite paradigma bere egingo duen lan-taldea beharko dugu. Motibazioan eragingo duen elikadura da antolatu behar dena, ekintzara bideratuko dena, gertuko eredu imitagarrietan oinarritua, harreman pertsonalak bultzatuko dituen, sare soziala osatzen



lagunduko duena. Sarritan “normalegiak” izan gara gure jardueran eta ahaztu egin zaigu joko-zelaia ez dela neutroa.

Lau ardatzetan antolatuko genuke elikadura:

- Topagunearen lidergoaren atalean (2. Helburuan) aipatu dugun aditu taldeari zuzendutako plangintza
- Elkarteetako ezagutza artikulatzeko plangintza
- Langileen taldeari propio zuzendutako plangintza
- Belaunaldi berri euskaltzale bat sortzeko plangintza

Aditu taldea

Euskaldunon elkarten mugimenduaren lagunen taldea osatuko genuke diskurtso sortzaile izan dadin, mugimenduaren norabidea marka dezan, hizkuntz politika ofizialen irakurketa egin dezan eta mugimenduaren ahotsaren errepresentazioa izan dadin. Ongi antolatu beharko litzateke osagarria izan dadin Topagunearen erabaki gune eta barrura begirako lidergoaren lanketarekin. Lan hau prestjgiatu beharko litzateke, bestalde, beste edozein bazkide-militanteek egindako ekarpen guztiak bezalaxe.

Gertuko eredu on imitagarriak eta ezagutza partekatu, bisioa adostu, konpaktazioa eragin

Euskaldunon elkarteek metatutako *know how*aren kudeaketa plangintza batera ekarri beharko litzateke. *Adorez eta Atseginez* mintegiaren ereduari jarraituta, gertuko eredu on imitagarrien lanketan oinarrituko litzateke. Ikerketa-ekintza



paradigmari jarraituko lioke eta etengabeko jarraipen lana eskatuko luke. Esperimentazioa abiatzeko gune izango litzateke, plan pilotuak laborategian bezala frogatu eta zabaltzeko gune.

Plangintza propioa langileekin

Bazkide-militantez hitz egiten dugunez, langile-militantez hitz egin beharko genuke. Zein iritzi dute? Zein emozioak mugitzen ditu? Beren lidergoa eraldatzailea izan dadin plangintza berezi bat egin beharko litzateke. Definitu beharko genuke nolako lan-taldea nahi dugun, adostu zer behar duten eta eskaini elkarrekin ibiltzeko bide erakargarria. Eskatu eta eskaini.

Belaunaldi berria sortu

Non daude etorkizunean euskararen festara deituak dauden gazteak? Euskaldunon elkarteek bideratzen duen aisia izan liteke belaunaldi berria prestatzeko habia? Zein helburu jartzen dizkiogu gure buruari gai honetan? Belaunaldi berria sortu nahi dugu mugimendu honen egituran geratzeko ala beraiekin eramateko?, ekintzaile jokatzeko doazen lekuan? Galdera hauei guztiei eta egin litezkeen guztiei kolpe egin beharko genieke zintzotasunez.



4. AZKEN OHARRAK PROZESUAZ

Txosten honetan biltzen diren proposamenak astindu egiten ditu urtez urte eraikitzen joan diren hainbat zutabe. Horretaz jakitun gara. Organizazio guztiek sistema eta interes ezberdinen arteko oreka gordetzen dute. Txosten honek oreka hori puska dezake beste oreka batzuk eraikitzeko. Galbahea erabiltzeko prest bagaude, ale batzuk ez dira iragaziko ziur aski. Prozesu honen emaitzekin zintzo jokatzeari, ordea, ezinbestekoa gertatzen da. Hausnarketaren ondorioz aldaketak egiteko, ondorioak asimilatzeke prest gaude? Dena zalantzan jartzeko zintzotasunik badugu? Kolokan jartzeko hainbat egitasmo? Beldurrak, errezeloak izango direla jakitun izan beharko genuke eta hauek plangintzan aurreikusi. Inertziei aurre egin beharko diegu, langileen egoera hor dago, eraldaketa prozesu sakona egitean, hausnarketa zintzo egingo dugu baina barneko kontraesanak agerian jarriko dira. Aldaketa mailakatua izateko paktua ez legoke gaizki. Ñabardurak garrantzitsuak dira.

Prozesua ez da lineala izango, beti egongo da abangoardia bat. Ukaezina da, era berean, hainbat gatazka daudela mugimenduaren baitan eta modu eraikitzailean eta epe luzeko perspektibarekin jokatzeari funtsezkoa da. Finantziarioaren gaia da gakoetako bat zalantzarik gabe. Plangintza propioa eskatzen du gaiak, interes orokorren aldeko apustua egingo badugu.

Era berean, garrantzitsua izango da lehentasunak ongi finkatzea. Zein da, prozesua bideratzeko hurrenkera egokia? Nola ekingo diegu hiru helburu orokorrei? Aurrerantzean erantzun beharreko galderak dira horiek. Txosten honen helburua ez da izan etorkizuneko estrategia, diskurtsoa proposatzea zein



testuinguruaren lanketa egitea. Horrek guzti horrek oinarriparrak definitu ostean etorri beharko du.

Edozein modutan, arestikoak ez dira galdera bakarrak. Batzorde txiki honen bileretan hainbat kezka atera zaizkigu mahai gainera: Formazio beharren kontzientziarik ba al da aktiboan daudenengan?, Euskalgintzako beste eragileekin zein posizionamendu izan behar dugu? Zein da gure zeregina foro horietan? Nola antola ditzakegu elkarteak finantziario publikoak sortzen dizkigun loturak ongi kudeatzeko? Nolako harremana izan behar dugu botere-guneekin? Zein mezurekin goaz erdaldunengana? Bide luzea dugu aurrean.

Bide hori trena martxan dela egin behar dugu baina. Operatiboena izango da gure ekintzen dinamiketarik abiatuta aktibatzea oinarriparrak "berriak". Zentzu horretan praxia izango da ardatza. Batzorde txikian ekintzen birformulazioarekin aritu gara jolasean. Bide emankorra izan litekeela ikusi dugu. Laborategiaren ideia klabea izango da prozesuan zehar. Modu koordinatuan aldaketak esperimendatzeko plan pilotuak abiaraztea ikusten dugu biderik emankorrena; soro batzuetan landatzen hastea eta geroago aldatzea besteetara. Formula horrek funtzionatu du lehenago ere, beraz, ale hori iragazi egingo dugu galbahetik.



5. ONDORIOAK

Jarraian laburbilduko ditugu prozesu honetako ardatz nagusiak, bere oinarriak, diagnostikoa eta proposatutako politika orokorrak:

ABIAPUNTUKO OINARRIAK:

- Euskararen komunitatea herriz herri trinkotu eta osabidean jartzeko eragileak dira euskaldunon elkarteak. Euskararen garapenean zeregin funtsezkoa du komunitatearen autoeraketak, gizarte zibilaren antolaketa ezinbesteko elementu eragilea baita botere publikoekin batera. Hazten, sendotzen jarraitzeko gogoari heldu behar diogu.
- Euskara sustatzearen aldeko pertsonen bilguneak dira Euskaldunon elkarteak, baina aurrera begira azpimarra daiteke beste dimentsio bat: euskaraz bizitzea nahi dugunon elkarte lokalak direla. Euskaraz bizitzea hautu kontziente bat da eta izango da, hautu hori egin dugunok badugu antolatzeko beharra, saretzeko nahia, hautu horren nondik norakoak arrakastaz bizitzeko.
- Gizarte mugimendu zabala da euskararen aldekoa, eta hainbat errealitate, erakunde eta azpi-mugimendu hartzen ditu bere baitan. Euskaldunon elkarten azpi-mugimendua izan liteke mugimendu zabalago horretako eragile oso berezi bat. Euskaraz bizi eta berau sustatzeko helburu bakarrez herri-elkarteko bazkide egiteko pausua eman dutenen bilguneak funtzio berezi bat du eragile moduan.



- Beharrezkoa da Euskaldunon elkarteen errealitatea mugimendu moduan ulertzea (handiago baten baitako azpi-mugimendua bada ere), eta gizarte mugimendu batek gaur egun behar dituen elementu guztiak artikulatzea: eraldaketa-diskurtso propioa, berau sozializatzeko elementuak, borondatezko lanaren oinarria, euskarri profesionala, eta abar.
- Hizkuntza ekologiaren planteamendu etiko eta zientifikoak (motibaziozko eta jakintzazkoak) ematen dio erantzunik egokiena euskararen garapenaren auziari. Ikuspegi eragile horren garapenean eta praktikan kokatzen dira Euskaldunon elkarteak, alderdi-ikuspegi politikoaren eta bestelako zatiketen gainetik.
- Mugimenduaren barruan bezala kanpora begira, lankidetzak da mugimenduaren jarrera. Lankidetzak bai euskaingintzako beste eragileekin, bai erakunde publikoekin, eta bai gizarteko beste eragileekin. Bestetik, gizarte mugimendu bati dagokion akuilu-lana ere badagokio. Ez da erraza bi jarrera hauek uztartzea. Lankidetzak eta akuilu-lana uztartzeak eskatzen du kontraesanak gainditzeko diskurtso sendo eta etengabe berritua izatea.



EGOERAREN DIAGNOSTIKOA:

Euskararen garapenaz

- Aurrerapen handia egin da azken 50 urteotan euskararen berreskurapenean. Horretarako egindako ahalegin miresgarri horrek eta lortutako emaitza askok sortutako autokonfiantza horretatik jardun genezake aurrera begira.
- Aurrerapenaren aurkiak badu bere ifrentzua: hizkuntzaren desafioak itzelak dira. Erritmo ez-nahikoan ari gara espazioak irabazten, moteltze fase batean sartu dira aurrerabide asko, atzerapausoan sartutako arloak badira, eta sintoma oso kezagarriak daude belaunaldi berrietan.
- Hizkuntza biziberritzeko bide honetan, beraz, nondik gatozen eta nora goazen birpentsatzeko unea da, helburuak doitu eta bideak probatzeko unea da, aurrerapen kualitatiboak egiteko unea da.

Euskaingintzaren mugimenduaz

- Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua sortua dago eta hamarkada bateko ibilbidea egin du. Oraingoz, ez du lortu euskaingintzako erakundeak trinkotzea eta diskurtso baten inguruan indartzea, nahiz eta horretarako potentziala izan lezakeen etorkizunean.



- Euskararen garapenari buruzko diskurtso sozial sendo baten falta dago, bai euskararen komunitatean eta bai gizarte zabalera begira.

Euskaldunon elkarteez

- Euskaldunon elkarteen erreprodukzio-sisteman sintoma kezkarriak ageri dira. Transmisioa falta izan da, eta jakintza soziolinguistiko ahula dago elkarteotako protagonistengan oro har.
- Profesionalizatzearen eta borondatezko lanaren artean oreka lehenbizikoaren aldera etorri da alor askotan. Bada halako moteltze bat borondatezko lanari dagokionean. Estualdi ekonomiko batean bereziki larria gerta liteke nukleo sinbolikoaren ahultzea.
- Artikulazio mugatua dago, zelulak ez dira gorputz osoago baten baitan behar bezala txertatu. Gidaritza falta bat nabari da, eta ez da mugimendu moduan gehiegi mamitu.

Aldi berean, indargune moduan:

- Masa kritiko oso aipagarria dute Euskaldunon elkarteek, artikulatzen eta norabideratzen asmatuz gero, potentzial handikoa. Egitura aldetik ere aberatsa da, eta badu aitortza bat erakunde publiko eta beste eragile batzuen aldetik.
- Mugimenduan bada adin tarte bat esperientzia eta jakintza handi xamarra pilatua duena eta aldi berean energia-adinean dagoena. Aldi berean, belaunaldi gazteagoetako pertsonak badaude ardura mailetara sartzeko moduan.



- Tradizio autozentratu bat dute Euskaldunon elkarteek, eta jakintza-bagaje aipagarria.
- Gaur egun daukagun azpiegitura duela 25 urte pentsaezina zen. Hortik egin behar dugu jauzia.

POLITIKAK:

1. Euskaldunon elkarteen Mugimendua, Topaguneak tiratuta, nazio mailako erreferente izan dadin, pentsamendua eta jakintzaren ardatza antolatzea mugimenduaren baitan, euskararen garapenerako diskurtso sendoago bat landu eta zabalduko duena.
2. Euskara Elkarteek lantzen dituzten eta lan ditzaketen alor desberdinetan (hedabideak, kulturgintza, jaiak, normalizazio-ekintzak...) proiektu-pilotuak egitea herri zehatz batzuetan, esperientzia horietatik ikasteko.

Honako aurre-proiektuak proposatu nahiko genituzke. Guztiak ere ikerketa-ekintza metodologia bidez lantzekoak izango dira, esperientzia berrien laborategi gisa, hain zuzen ere:

- Aisiako begiraleak elkarteratzeko plangintza

Euskaldunon elkarteetako aisialdi egitasmoetan begirale eta hezitzaile askok parte hartzen du urtero-urtero, baina ez dago inolako



mekanismoarik antolatuta elkartearentzako lanean ari diren gazte horiek elkarteko eragile bihur daitezten.

- Elkarte bizitza aktibatzekeo plangintza

Bazkideak elkartera hurbildu eta euskaldunon elkartean boluntarioen parte hartzea indartzeko plangintza.

- Euskaltzaletasunaren suspertzaile izan daitezten komunikabideetan eragitekeo plangintza

Euskaldunon elkarteek argitaratzen dituzten hedabideetan, tokiko informazioa lantzeaz gain, hiztun komunitatean euskalduntasunean eragitekeo dinamika martxan jartzea litzateke proposamena. Gaur egun hedabideak gutxi erabiltzen ditugu gure iritzia plazaratzeko, ideologia egitekeo.

- Euskara ez dakitenengan eragitekeo plangintza

Gutxitan jardun dute euskaldunon elkarteek orain arte euskara ez dakiten herritarrekin, edo gutxienez, gutxitan egin dute modu planifikatuan. Euskara ez dakitenen artean euskararekiko eta euskaldunekiko jarrera ezberdinak daude eta euskaldunon elkarteei badagokigu horretan eragitea.



- Teknologia berriak erabiliz mugimenduaren ahotsa bazkideengana eramateko plangintza

Mugimendu modura, tokian tokiko elkarteetatik harantzago, gure oinarri sozial guztiarekin lan egiteko plangintza.

- Mugimenduaren oinarriparak xede-taldeen arabera sozializatzeko komunikazio-plangintza

Diskurtso berritua osatzeko eta gizarteratzeko plangintza

- Helduen aisiako jarduerak hiztunak berrelikatzeke tresna gisa erabiltzeko plangintza

Hiztunei hizkuntza ikasketa prozesua (ibilbide kulturaletik naturalera) egiten laguntzeko tresna gisa artikulatuko den aisia garatzea.

- Hedabideak (bereziki ikusentzunezkoek eta teknologia berrizkoek) hizkuntza eta kultura lantzeko gune gisa (gazte hizkera, umorea, kantagintza, hizkuntza jokoak... lantzeko) baliatzea.

3. Lehenetsuneko lanen artean kokatzea militanteen artikulazioa eta elkarteetako trinkotze-mekanismoak aktibatzea, elkartera erakartzen dugun jendea eragile izan dadin.



4. Elikadura sistema martxan jartzea: taldeko profesionalen, militanteen eta belaunaldi berrien formazioa antolatzea modu mailakatu eta iraunkor batean.

Lau politika hauek martxan jartzeak Topagunea berregituratzea eskatzen dute, aipatutako funtzioetarako, behar den mailako organoak sortuz. Jakintzaren eta etorkizun-ikuspegiaren alorra lantzearen funtzioa, barrura begirako estrategiak lantzearen funtzioa eta elikadura sistema bermatzearen funtzioa.

Bistan denez, lau ardatzak elkarrekintzan dihardute, elkar elikatzen dute. Irudi batez ematekotan hiruki bat marraztuko genuke. Elkarte bizitza biziberritzea kokatuko genuke hirukiaren erdian eta beste hirurak erpin bakoitzean. Ea irudiak irudimena pizten digun...



6. ETORKIZUNEAN LANTZEKO GERATZEN DIREN GAIAK

Txosten honek Euskaldunon Elkartearen Mugimenduaren oinarriparrak zehaztu ditu, baina bistan da egiteko asko uzteaz gain, erantzuteke geratzen diren galderak ere badaudela. Hiru ataletan batu ditugu hausnarketak iraun duen denboran agertu diren hainbat galdera, hurrengo hilabeteetarako landu beharrekoen artean gelditzen direnak:

PRINTZIPIOAK ETA KOMUNIKAZIOA

Testuinguru sozialaren azterketa

Mugimenduaren barne diagnosis testuinguru sozialari buruzko irakurketarekin osatu beharra dago. Euskaldunon Elkartearen Mugimendua XXI. mendeko gizarte eredura egokitutako mugimendua nahi bada, a testuinguruaren lanketa egin behar da eta honako galderari erantzun:

- Etorkizuneko dinamika militantea zertan oinarrituko da? Zein profil du eta izango dute gure mugimenduko boluntarioek?
- Zein jendarte eredu da mugimendu honek hobesten duena etorkizunerako?
- Gizartean dauden kontsumo joera berriak eta egitura ekonomikoak zertan eragiten diote mugimenduari?

Diskurtsoaren lanketa

Mugimenduaren diskurtsoa osatu beharra lehentasunezko gaia izanik horri begirako hainbat egiteko berri irekitzen dira.



- Gure xedea, “hizkuntza komunitate osasuntsu eta iraunkorra indartzea eta elikatzea” ondo definitu behar da, ondo komunikatu ahal izateko.
- Diskurtsoaren oinarrian egongo diren hizkuntza ekologiaren printzipioetan sakondu beharra dago. Honekin lotuta, eleaniztasunaren diskurtsoa ondo lantzea garrantzitsua da, erabilpen gaiztorako bidea ematen du eta.
- Diskurtsoa lantzerakoan terminologia bereziki landu beharko da.
- Hartzaile ditugun xede-taldeen arabera mezua egokitu behar da.

ELKARBIZITZA ETA PEDAGOGIA

Euskaingintzako eragileekiko harremana

Euskaingintzako gainontzeko eragileekiko harremanak nolakoa izan behar duen definitzea lehentasunezko gaia da.

Erdaldunekin harremana

Erdaldunekin lan egiteko beharra azpimarratuta, hizkuntza komunitateen arteko harremanak nolakoa izan behar duten eta zein printzipioren bueltan ardaztu nahi ditugun landu behar da.

Eragite lana

Definitutako eragite lana bideratzeko prestatu beharra daukagu.

- Botere politiko eta ekonomikoan eragitea zeregin garrantzitsu bezain zaila da eta horretarako mugimendua prestatu beharra dago.
- Eragite lanerako metodologia garatu behar da.



- Belaunaldi berrietan inbertitzea lehentasun gisa kontsideratuta, plangintza propioa eskatzen du zeregin honek.

Transmisio eta elikadura mekanismoak

- Gogoetarako tresnak sortu eta eskaini behar dira, pentsamendua garatzeko tresnak.

Teoriatik praktikara

Xedetik praktikarako jauzia egiteko sakondu beharra dago, esperientzia praktikoko eredugarriak eskaini eta adibide zehatzetara ekarri beharra dago formulazio teorikoa.

ANTOLAKUNTZA ETA FINANTZAZIOA

Xedeari erantzuteko egituraketa

Helburu eta lan ildo berriei erantzuteko Euskaldunon Elkartearen Mugimenduaren antolakuntza berrikusi beharra dago. Nola irudikatzen dugu XXI. Mendeko euskaldunon elkartearen mugimendua?

Tokikotasuna

Euskaldunon elkartearen egungo izaera berrikusi behar da.

- Herri/eskualde zehatz bati lotutako norbanakoekin osatu behar dira etorkizunean ere euskaldunon elkarteak?
- Bestelako euskaldunen bilguneak ere kontuan hartu behar ahal dira (Internet, lantokia, eskola,...)?



- Ze egitura-molde aurreikusten diegu? Zein funtzio izango dute boluntarioek? Zein profesionalek? Nola artikulatu nahi dugu gure elkarte bizitza?

Nazio maila

Nazio mailako egituraketan eta bazkideekiko harremanean sakondu beharra dago.

- Topagunearen izaera eta funtzioak berrikusi behar dira.
- Bereziki lidergoa gauzatzeko aurre ikusten diren funtzioak lanketa berezia eskatzen du.
- Herria eta nazioaren arteko antolaketa berrikusi beharra dago eta eskualde antolaketa artikulatu.
- Mugimendu barruan garatu beharreko harreman motaz sakondu behar da.

Finantzazioa

Mugimenduaren finantzaketa eredu argitzea premiazkoa da. Autonomia ekonomikoa funtsezkoa da, bai elkarteena eta baita federazioarena ere.



7. ITURRIAK

Hausnarketa bideratzeko zenbait iturritatik edan dugu:

Arexolaleiba, Juan Luis (2010) Izenbururik gabeko ponentzia. XXI. Mendeko euskara elkarteak, diagnostik erronketara jardunaldirako prestatutako hitzaldia. <http://www.topagunea.org/dokumentazioa/jardunaldiak/> Azken kontsulta: 2010-10-18.

Arexolaleiba, Julen (1990) *Gure lanaren norabidearen teorizazioa*. Jazten 3, 35-42. orr.

Arruti, Iñaki (2000) Euskaingintzaren nondik norakoak. Dokumentu argitaragabea, HIZNET ikastaroko ikasgaia. Asmoz Fundazioa.

Arruti, Iñaki (2009) Nola uztartu teoria eta praktika?. Euskal Kulturgintzaren Transmisioa aditu-tituluaren saioak: (<http://www.slideshare.net/JoXe/iaki-arruti-2009-01-21-huhezi>). Azken kontsulta: 2010-10-18.

Arruti, Iñaki & Muniozguren, Fernando (1992) *Euskararen normalizazioarako entitateen arteko elkarlana*. Jazten 8. zenbakia, 15-28. orr.

Azkarraga, Joseba (2009) *Nor naiz ni? Galdetu du postmodernoak*. In Berandu baino lehen. Erretratuak XXI. Mendeari. Alberdania, 240-250.orr.

Berbaro elkarte (2010) Gogoeta prozesua. Dokumentu argitaragabea.



Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua (2010) <http://www.kontseilua.org>
Azken kontsulta: 2010-10-18.

Eizagirre, Andoni (2009) Euskara elkarteak, komunitatea mugimenduan.
Eskuera jardunaldian emandako hitzaldia
(<http://www.jardunaldiak.org/bideoak/euskaraelkarteakkomunitateamugimenduan>)
Azken kontsulta: 2010-10-18.

Etxeberria, Malores (2010) Euskara elkarten etorkizuna: hainbat zertzelada.
Dokumentu argitaragabea. Prozesu honetarako idatzizko ekarpena.

Eusko Jaurlaritza (HPS) [http:// www.euskadi.net/euskara](http://www.euskadi.net/euskara) Azken kontsulta:
2010-10-18.

Garabide Elkarte (2010) <http://www.garabide.org>. Azken kontsulta: 2010-10-18.

Hainbat egile, (1992) Jazten 8 eta 9. zenbakiak.

Izagirre, Koldo (1997) Non dago Basques' Harbour. Susa argitaletxea.

Larrañaga, Imanol (1997) Elgoibarko Izarra kultur elkartea. Dokumentu argitaragabea.



Larrañaga, Imanol (2010) Elgoibarko Izarra. Atzera begira aurrera egiteko, 1990-2010. Euskal Kulturgintzaren Transmisioa aditu-tituluaren Kurtso Amaierako Proiektua. Dokumentu argitaragabea.

Martinez de Luna, Iñaki (2010) Hizkuntza-diskurtsoaren gaineko gogoeta. Dokumentu argitaragabea. Prozesu honetarako idatzizko ekarpena.

Martinez de Lagos, Iker & Mendizabal, Jasone (2010) Elkarte bizitzaz egindako txostena. Dokumentu argitaragabea. Prozesu honetarako idatzizko ekarpena.

Martinez de Lagos, Iker & Mendizabal, Jasone (2010) Topagunearen lidergoaz egindako txostena. Dokumentu argitaragabea. Prozesu honetarako idatzizko ekarpena.

Miner, Imanol (2010) Izenbururik gabeko ponentzia. Prozesu honetarako prestatutako hitzaldia.

Miner, Imanol (2010) Izenbururik gabeko ponentzia. XXI. Mendeko euskara elkarteak, diagnostik erronketara jardunaldirako prestatutako hitzaldia. <http://www.topagunea.org/dokumentazioa/jardunaldiak/> Azken kontsulta: 2010-10-18.

Moreno, Manuel (2010) kulturgintzaz egindako txostena. Dokumentu argitaragabea. Prozesu honetarako idatzizko ekarpena.



Pérez, Sonia (2010) haur eta gazteen sektoreaz egindako txostena. Dokumentu argitaragabea. Prozesu honetarako idatzizko ekarpena.

Ramos, Rosa (2010) Euskara elkarteek egindakoaren mapa. Dokumentu argitaragabea. XXI. Mendeko euskara elkarteak, diagnostik erronketara jardunaldirako prestatutako ekarpena. <http://www.topagunea.org/dokumentazioa/jardunaldiak/> Azken kontsulta: 2010-10-18.

Rojas, Joxe (2010) hedabide sailaz egindako txostena. Dokumentu argitaragabea. Prozesu honetarako idatzizko ekarpena.

Sanchez Carrion, J.M. (1991) Un futuro para nuestro pasado.2. argitld.: Donostia, Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo" (374-407 orr. bereziki)

Sanchez Carrion, J.M. (1996), *"Un futuro para nuestro pasado" idazlaneko ideiei buruzko jarrera intelektualak*. Bat aldizkaria, 18, 17-22.orrr.

Sarasua, Jon (2010) Euskaltasunaren norabideaz oldozpen batzuk. Gotzon Garateren omenaldian Elgoibarren emandako hitzaldia (<http://vimeo.com/7444598>). Azken kontsulta: 2010-10-18.

Topagunea (2010) XXI. Mendeko euskara elkarteak, diagnostik erronketara. Dokumentu argitaragabea.

Zintzo-mintzo elkarte (2010) Gogoeta prozesua. Dokumentu argitaragabea.



Zubiaga, Mario (2010) *Suaviter in modo* In Argia 2224, Larrun gehigarria, <http://www.argia.com/argia-astekaria/2224/euskal-kulturaren-transmisioa/suaviter-in-modo-mario-zubiaga>. Azken kontsulta: 2010-10-18